Zumaiako Udala
Zbk./ Nº 2024-3859
Data / Fecha 2024/06/17 21:32
Sarrera / Entrada

**Zumaiako Udalari:**

Zumaiako osasun-zentroari eragiten ari zaion egoera, udalbatzaren erabakian bertan jasotzen den bezala, bi egoeren ondorio da: bat, egiturazkoa, konponbide zailagoa duena, eta, beste bat, koiunturala, laster konpontzea espero duguna.

Gauza bera Zumaian zein Euskadi osoan, beste autonomia erkidego batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan ere: egiturazko arazo bat dago, hainbat espezialitatetan medikuntzako profesionalen falta dagoelako, hala nola lehen mailako arretarako familiako eta komunitateko medikuntzan.

Egoera horren arrazoia da Estatuko Gobernuak, gaian eskumena duenak, ez zuela aurreikusi gaur egun erretiroa hartzen ari direnen lanpostuak betetzeko beharko liratekeen profesionalen kopurua, eta ez zirela garaiz gehitu unibertsitateko prestakuntza-plazak eta BAME espezializazio-plazak. Egoera hori zuzendu da, baina ez da eraginik sumatuko urte batzuk igaro arte.

Osakidetzaren kasuan, erretiro, baimen eta bajengatiko plaza hutsak gehituta, % 10 ingurukoa da bete gabeko plazen ehunekoa. Egoera konpontzen saiatzeko, antolamendu- eta kudeaketa-neurriak hartu dira, horrela ia zentro guztietan urte osoan egon dadin medikuren bat.

Bigarren egoera koiunturala da; Osakidetza plantilla egonkortzeko prozesuan sartuta dago bete-betean, zeina eskakizun politikoa, soziala eta laborala baita. Prozesu horien ondorio da lehen mailako arretako profesionalak, haien eskubidea baliatuz, destinoak aukeratzen ari

**Ayuntamiento de Zumaia:**

La situación que está afectando al centro de salud de Zumaia, tal y como refleja el propio acuerdo del pleno municipal, es resultado de dos situaciones, una estructural y de más difícil solución, y una coyuntural que esperamos se pueda solucionar pronto.

Lo mismo en Zumaia, que, en el conjunto de Euskadi, y al igual que en otras comunidades autónomas y países de Europa, existe un problema estructural de falta de profesionales de medicina en varias especialidades, entre ellas la de Medicina de Familia y Comunitaria para la Atención Primaria.

La razón de esta coyuntura es que el Gobierno del Estado, competente en la materia, no previó el número de profesionales que serían necesarios para cubrir las plazas de quienes se están jubilando en la actualidad, no se incrementaron a tiempo las plazas de formación universitaria ni las de especialización MIR. Esa situación se ha corregido, pero no tendrá efectos hasta dentro de algunos años.

En el caso de Osakidetza, sumando plazas vacantes por jubilación, permisos y bajas, el porcentaje de plazas sin cubrir ronda el 10%. Para tratar de paliar la situación se han adoptado medidas organizativas y de gestión para posibilitar mantener la práctica totalidad de los centros con presencia de personal médico durante todo el año.

La segunda circunstancia es coyuntural; Osakidetza está en pleno proceso de estabilización de su plantilla, una demanda política, social y laboral. La consecuencia es que los y las profesionales de la Atención Primaria, ejerciendo su derecho, estén eligiendo destinos

SIER09e02843-16fd-4028-bb72-7ca11b995281

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945019161 - E-mail: sec-consejeriasalud@euskadi.eus

direla, eta mugimenduak eta lekualdaketak sortzen ari direla EAEko osasun-zentro guztietan. Prozesu hori egonkortu arte ezingo da plangintzarik egin Euskadi osoan ahalik eta zerbitzu-estaldura onena emateko.

Zumaian, berriz, hauxe da egoera, gaur egun: familia medikuen 6 kupoetatik hiru daude beteta, hasi berria baita lehen mailako arretako unitateburua; lanpostu bat hutsik dago titularra senide bat zaintzeko baimena hartuta dagoelako, eta irailean hasiko dela aurreikusten da; eta bi lanpostu huts daude norbaitek eskaintza bete zain.

Bestalde, Osakidetza, bere sarearen bidez, Zumaiako zentroari laguntzen ari da, estaldura hauen bidez: Zarauzko eta Donostiako medikuak laguntza presentziala ematen ari dira ia egunero Zumaian. Eta laguntza telematikoa ere eskaintzen da beste bi profesionalen bidez, beste zentro batzuetatik administrazio- eta telefono-lanak egiteko.

Osakidetzak baliabide-sare oso zabala dauka herritarrek osasun-arreta behar dutenean kalitatezko arreta emateko: arreta anbulatorioa, etengabeko arretako guneak, etxez etxeko arreta, eta ospitaleko emergentzia- eta larrialdi-zerbitzuak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 14

y generando movimientos y traslados en todos los centros de salud de Euskadi. Hasta que ese proceso no se estabilice no se podrá hacer una planificación para dar la mejor cobertura posible al conjunto de Euskadi.

La situación en Zumaia a fecha de hoy es la siguiente: de los 6 cupos de médicos/as de familia hay cubiertos tres por la reciente incorporación del jefe de la Unidad de Atención primaria; hay una vacante porque su titular está de permiso por cuidado de una familiar y cuya incorporación se prevé para septiembre; y hay dos vacantes esperando que alguien atienda la oferta para su cobertura.

Por otra parte, Osakidetza, a través de resto de su red, está ayudando al centro de Zumaia con las siguientes coberturas: personal de medicina de Zarautz y de Donostia están dando apoyo presencial casi diario en Zumaia. Y también se ofrece apoyo telemático con otros dos profesionales para tareas administrativas y telefónicas desde otros centros.

Osakidetza dispone de una amplísima red de recursos que permiten una atención de calidad cuando la ciudadanía necesita atención sanitaria: atención ambulatoria, Puntos de Atención Continuada, atención a domicilio, servicios de emergencias y urgencias hospitalarias.

Vitoria-Gasteiz, 14 de junio de 2024

MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA - 11907331R

Firmado digitalmente por MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA - 11907331R
Fecha: 2024.06.17 11:43:27 +02'00'

**Gotzone Sagardui Goikoetxea**
**Osasun Sailburua / Consejera de Salud**

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945019161 - E-mail: sec-consejeriasalud@euskadi.eus

EKS | CSV: SIER09e02843-16fd-4028-bb72-7ca11b995281
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110*